

KULTURKRITIKA

» **LIBURUA**

Goxo-goxo kontatzekoa



Xabier Etxaniz Erle



Grufaloo

JULIA DONALDSON

Ilustratzailea: Axel Scheffler
Itzultzailea: Amets Sanchez Munain
Bruño, 2016.
32 orrialde.
Haurrentzat

*Julia Donaldson idazlea
(Londres, 1948) Eskozian
bizi da, Glasgow hirian.*



Grufaloo duela ia bi hamarkada argitaratu-tako obra ezagunaren euskal bertsioa dugu hau. Album honetan basoko animalien istorioa kontatzen da eta bere sinpletasunean, antzinako alegien antza duela esan dezakegu. Ez da, baina, ohiko alegia; edo beste modu batean esanda, narrazioa, erritmoa, ikuspuntua... oso gaurkoak dira eta horrela irakurleak antzinako alegien jakituria jaso dezake baina ikuspegi umoretsu eta gaur egungo baten bidez.

Istorio honetako protagonistarik nagusiena, eta azkarrena, sagu txiki bat dugu:

“Sagu bat baso sakon ilunean ibiltzera atera zen. Azeri batek sagua ikusi zuen, eta goxoa iruditu zitzaion...”

– Nora zoaz, sagutxo marroi? Etorri nahi duzu nire gordelekura?”

Azeriaren jakin-minak Grimm anaien otsoarena gogorarazten digu. Eta arriskua-
ren berri eman ere. Ez da gonbidapen hutsa azeriak egiten diona, irudietan ikus daite-
keen bezala sagua jateko gogoa baitu hasiera-hasie-
ratik.

Honek, aldiz, oso modu dotorean uko egiten dio azeriaren “gonbidapenari”:

– “Mila esker, azeri, baina ezin dut. Grufalo batekin gelditua nago bazkaltzeko. (...)”

– Zer da grufalo bat? (...)”

– Letagin izugarriak ditu, atzapar izugarriak eta hortz izugarriak bere aho izugarrian”.

Azeriak, jakina, lasterka ihes egiten du hori entzutean. Eta saguak irribarre, sartu dion ziriagatik.

Aurrerago gauza bera gertatuko da hontza eta sugearekin topo egitean. Hauek, sagua-
ren etsai naturalak, korrika aterako dira grufaloaren berri izatean. Eta saguak irribar-
rez... harik eta benetako grufalo bat aurkitu arte. Eta ba al dakizue zein den grufaloen janaririk gogokoena? Saguak!

Ordura arte bizkorra eta trebea zen sa-
guak, are bizkorragoa dela erakutsiko digu, grufaloo bera ere beldurtzeraino (eta orain-
goan irakurle-ikusleen aurpegietan ageriko da irribarrea).

Basoko animaliarik txikiena bere etsai guztien gainetik gailenduko da. Guztiek begiratuko diote errespetuz eta ikara puntu batekin, eta hori guztia burua erabiliz.

Narrazioaren erritmo errepikakorra, pertsonaien urritasuna, protagonisten karakterizazio sinplea bere ekintzen bi-
dez: antzinako herri ipuinetako ezaugarri horiek ditu kontakizun honek. Horiek eta Axel Schefflerren irudien indarra; izan ere, irudiek informazio osagarri ugari ematen dute, istorioa hobeto ulertzen laguntzen eta irakurle-ikuslearengan atsegin handia-
goa eragin. Gainera, istorio guztiz aproposa dugu hau umeei kontatzeko irudiak era-
kusten dizkiegun bitartean; talde handitan edo etxeko goxotasunean ederki gozatzeko moduko istorioa.

Orain bakarrik falta zaigu Bruño argitale-
txekoak animatzea eta istorio honen ondo-
rengoa den *Grufaloaren alaba* ere euskaraz irakurtzeko aukera eskaintzea. ■